

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Administrazio Kontseiluaren Erabakia 2019ko martxoaren 7koa. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonen taxi zerbitzua ordezeko garraio bide gisa erabiltzeko laguntzen urteko deialdiaren zuzkidura handitzea

Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 28ko 55/2017 Foru Dekretuak Mugikortasun arazoak dituzten pertsonen taxi zerbitzua ordezeko garraio bide gisa erabiltzeko laguntzen oinarri arauak onetsi zituen, eta honakoa ezartzen zuen 14. artikuluan, honako izenburupean: Laguntzen finantzaketa eta zenbatekoak finkatzea. Laguntzak finkatzeko irizpideak. Horren arabera: "Urteko deialdian zehaztuko dira deitzen diren laguntzetarako erabil daitekeen gehieneko zenbateko osoa eta laguntzak aurrekontuko zer partidari egotziko zaizkion, bai eta zenbateko gehigarria ere (ehunekoa kasuan kasuko deialdian zehaztuko da)".

2018ko urriaren 31n argitaratu zen Mugitzeko arazoak dituzten pertsonen bideratutako eta taxia garraio bide alternatibo modura erabiltzeko laguntzen 2019ko deialdia. Horren seigarren oinarrian honakoa ezartzen da: Deialdi publiko honetan arautzen diren dirulaguntzak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2019ko aurrekontuko 80203 0321 4800021 "Taxi zerbitzua erabiltzeko laguntzak" gastu partidaren kargura ordainduko dira. Deialdi honetarako hasierako zuzkidura hirurehun eta berrogeita hamasei mila euro (356.000,00 euro) da; nolana ere, kopuru horri ehuneko 50 gehitu ahal izango zaio.

80203 0321 480.00.81 "Taxi zerbitzua erabiltzeko laguntzak" partidaren 2019rako zuzkidura 400.000,00 euro da.

Kontuan hartu da deialdi hau lehia askean emango direla, aurkeztu eta ebatzi diren eskaeren kopurua, ebatzteke dauden eskaerak eta deialdian ezarritako eskaerak aurkezteko epea bukatu arte aurkeztuko diren eskaeren aurreikuspena, eta ikusi da horiei behar bezalako erantzuna emateko beharra eta Ezinduen Arloko txosten teknikoa, deialdiaren zuzkidura 44.000,00 gehitzea proposatzen duena.

Horregatik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluaren lehendakariak proposaturik, eta agiri honek daraman dataren egunean egindako bilkuran kontseilu honek gaia aztertu eta gero, honako erabaki hau hartu da,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespina ematea mugikortasun arazoak dituzten pertsonen taxi zerbitzua ordezeko garraio bide gisa erabiltzeko laguntzen deialdi publikoaren (ALHAO, 2018ko urriaren 31, 125 zk.) zuzkidura handitzea.

Bigarrena. Zuzkidura 44.000,00 euro handituko da, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2019rako luzaturiko 2018ko ekitaldiko aurrekontuaren 80203 0321 4800021 "Taxi zerbitzua erabiltzeko laguntzak" gastuen aurrekontu partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 105/6).

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 7a

Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatu eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluaren lehendakaria
M. ANTONIA OLABARRIETA IBARRONDO